

DONOSTIAKO DANBORRADA

-DONOSTI BAT BAKARRA MUNDUAN-

Danborrada, Donostian ospatzen den festarik garrantzitsuenetakoa da, urtarrilaren 20an, danborra eta upelen artean, Donosti Eguna ospatzen da. Festa, Urtarrilaren 19ko gauerdian hasten da, donostiarrak Konstituzio Plazan bildu eta 0:00 ordua iristean, *San Sebastian Martxa*-k festari ematen dio hasiera, Donostiako banderaren altxaerarekin batera.

Danborradako jaia, danbor eta upelen desfile sorta bat da, non, hainbat pieza jotzen dituzte, gehienak Raimundo Sarriegik XX. mendean sortutakoak. Danborra daramatenek, Napoleonen garaiko militarren jantziak eramaten ditzuzte, bestalde, upela daramatenak, sukaldariz.




JATORRIA

Lehen danborrada noiz izan zen zehaztu gabea izan arren, kronikaren arabera, XIX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadan, donostiako patroiaien festa (1597an sortua) ospatzeko egin zen gaur egun Danborrada izenez ezagutzen den lehen desfilea.

Historialariek diotenez, hiri harresitu eta giro militarra nagusia zenean, goizeko tropek, San Telmoko Kuarteletik, Lehorreko atera (Gaur egun Bulebarra) desfilatzen zuten, guardia txandakatzeko. Inauteri-garaian, dandor-errepiketik eta musikak, gazte festazaleei, militar-itxurazko pausoak imitatzen gonbidatzen zituzten, hiriari jai-giroa emanez. Era horretan sortu zen lehen Danborrada informal eta zalapartatsua.

Donostiako Inauterietako konpartsa gisa sortu eta hiriko patroiaien eguna ospatzeko, urtero, goizeko hirurak eta erdi aldera, upelekin (beranduago danborrak ere), “La Fraternal” elkartetik atera eta “Sheshenarena” pieza jotzen zuten. Hiriko kaleetatik donostiarrei, goizeko zortzirak arte, Konstituzio plazan sokamuturra egingo zela iragartzen ibiltzen ziren. Iñigo eta Narrika kaleak bat egiten zuten kalean amaitzen zuten, sokamuturraren zain.



Mendeak pasa ahala, garaiko kantuek jotzeaz gain (Urta Papito, Sheshenarena, Antzinako Iriyarena...) Raimundo Sarriegik idatzitako abestiak gehitu zituzten eta 1965ra arte, bere lau konposizio izendatu ziren Danborradaren errepretorio klasiko: San Sebastian martxa, Diana, Tatiago eta Irirayena.



1870an “Union Artesana” elkarteak, “La Fraternal” elkartearen lekua hartu zuen. Hauek goizeko bostetan ateratzen ziren eta gerra napoleonikoetako jantziak erabiltzen zituzten, urteak beranduago beste elkarteak hasi eta ohitura bat sortuz. Elkarteak batu eta bestelako uniformeak erabiltzen hasi ziren, besteak beste, armada frantsesarena, ingelesarena, portugaldarrena edo espainairrena. Lehen

Danborradetan parte hartzeko erabiltzen ziren lata edo barrilen ordezkariak, danborrak, upelak eta suilak erabiltzen hasi ziren, garai bateko Danborradak oroitzeko.

1906ean Euskal-Billerako lehen Danborrada sortu zen, urte hartan, hainbat elkarte batera atera nahi zutelako: Union Artesana, Club Cantabrico, Amistad Donostiarra, Euskal Billera...

1980an sortu zen lehen Danborrada mixtoa, “Kresala” elkartearen eskutik, non emakumeak, urketariak izeneko pertsonaiak ziren. Geroztik, elkarte gehiago eta gehiago batu eta desfile mixtoak egiten hasi ziren.

1999an, Danborrada guztietako ordezkariak, eguneko ekitaldi garrantzitsuenetan hartu zuten parte, Konstituzio Plazako banderaren igoeran. Urte hartatik aurrera, banderaren igoera izan da San Sebastian egunari hasiera ematen dion ekitaldia, Raimundo Sarriegiren *San Sebastian Martxa* abestiarekin batera, Donostiako bandera igo eta egun bereziari hasiera emanez.

Gaur egun, San Sebastian egunean 151 danborrada ateratzen dira hiri osoko auzoak musika eta alaitasunez betetzen.

RAIMUNDO SARRIEGI

Raimundo Sarriegi Echeverria, musika-konpositore donostiar ezagun bat zen, 1838ko martxoaren 15ean jaioa, Donostiako 1813ko sutearen ondorengo hiriaren berreraikitzea ezagutu zuen bere haurtzaroan. 23 urte zituela bota zen Donostiako harresia, zabalgunerak sortuz, San Sebastian de la Belle Epoque berriari hasiera emateko. Raimundo Sarriegi izan zen garai hartako ordezkari nabarmenetako bat, jada, Donostiako Martxa sortu zuen garai hartan, Danborradako jatorrietako Santestebaren abestia ordezkatu zuen doinua.

Musikari dagokionez, XIX. mendeko Danborraden musikari buruz albiste gutxi izan arren, badakigu festarako egokitutako musika zela nagusi, hala nola, Iriyarena, Pastelero edo Sheshenarena.



1861ean, Raimundo Sarriegik “El Carnaval de San Sebastian” izenburuko lan bat argitaratu zuen, non Iñauteriko musikaz gain, Danborradako abestirik nagusienak aurkitzen diren, besteak beste, Diana, Tatiago edo Iriyarena; San Sebastian Martxaz gain.

Konposizio asko idatzi zituen eta Donostiarra izanik, bere musika eta donostiarren arteko elkar ulertzeari esker, berehala Donostiar barru-barrukoa, berezia eta bakarra zen zerbait bezala ulertzen hasi zen, Danborradari berezko nortasuna emanez eta inauterietatik urruntzen hasiz.

Gaur egun, bere omenez, Donostiako Sarriegi plazan, bere estatua bat aurkitzen da.



1913ko apirilaren 23an hil zen.

DANBORRDAREN KONPOSIZIOA

Urtarrilaren 20an, Donostia, danbor, kupel eta musikaz betetako eguna izaten da. Hiri osoan zehar, auzo desberdinetan hainbat desfile aurkitzen dira, gastronomia edo kultur-elkarteek sortutako desfileak. Danborrada edo desfile bakoitza uniformatu egin behar dira, elkarte bakoitzak uniforme desberdinak edukiz eta derrigorrezkoa da danborradak musika banda batekin desfilatzea. Desfilea, hainbat paperetan banatuta dago:

Gastadoreak: Hauek Danborradaren buruan kokatzen dira, aurre aurrean, desfileari hasiera emanez. Ez dute instrumenturik jotzen, jada koilara, sardexka edo labanak izaten dituztelako. Soldaduz edo sukaldariz janzten dira eta koreografiak egiteaz gain, daborrarien edo upelen laguntzaile izaten dira.

Banderadunak: Hauek ere Danborradaren buru izaten dira, elkartearen bandera bat eramanez. Donostiako bandera bat ere eramaten dute, derrigorrezkoa delako, Ikurriña berriz, ez da derrigorrezkoa baina Ikurriña ere eramateko aukera dute.

Kantinerak: Banderadunaren atzean desfilatzen dute. Ia guztiak emakumezkoak dira, armadetan, sodaduei janaria eta edariak eramaten ditzuzte emakumeak irudikatzen dituztelako. Kantinerak, desfilean ez dira derrigorrezkoak, hala ere, Danborrada gehienetan ohikoak dira

Danbor nagusia: Danborrada osoko agintari nagusia eta danborrak zuzentzen dituena da. Elementu nagusia, zintak dituen aginte-maikla da.



Danborrak: Danborra jotzen dutenak dira eta gutxienez 20 danbor egon behar dira konpainia osatzeko. Napoleonen garaiko uniformeetan oinarritutako jantziak izaten dira.

Banda: Zuzenean jotzen duten musika-banda bat da eta 14 pertsonaz osatutako taldea da. Zuzeneko musika beharrezkoa da eta araudiak aurretik grabatutako musika debekatzen du. Normalean ez dira danborradako elkartearen kideak, baizik eta beste elkarteko musika bandak.

Upelak: Talderik haniena da eta danborrada ixten dute. Upelak jotzen dituzte eta 40 pertsonaz osatutako taldeak dira, danborren bikoitza dira. Hauek bi azpitaldetan banatzen dira: Kupela eta urketariak.



MUSIKA

*Bagera...!
gu (e)re bai
gu beti pozez
beti alai!
Sebastian bat bada zeruan
Donosti(a) bat bakarra munduan
(h)ura da santua
(e)ta (h)au da (h)erria
(h)orra zer dan gure Donostia!*

*Irutxuloko, Gaztelupeko
Joxemaritar za(ha)r eta gazte
Joxemaritar za(ha)r eta gazte
kalerik kale danborra joaz
umore ona zabaltzen hor dijoaz
Joxemari!*

*Gautandik gerora penak txokora
Festara! Dantzara!
Donostiarrei oi(h)u egitera gatoz
pozaldiz!
Inauteriak datoz!*

*Bagera...!
gu (e)re bai
gu beti pozez
beti alai!*

Danborradako lehen urteetan, “La Fraternal” elkartetik jaisten zirenean, Santestebanena jotzeaz gain, Sheshenarena abestia ere jotzen zuten danbor eta upelekin. Hala ere, urteak pasa ahala, tradizioak eta ohiturak aldatzeaz gain, musika eta doinuak ere aldatu dira. Gaur egun, danborradetan entzuten diren doinu gehienak Raimundo Sarriegik sortutako doinuak dira: Diana, Erretreta, Iriyarena...

Donosti Eguneko abesti nagusia *Donostiako martxa* da, 1861ean, Raimundo Sarriegik sortutako doinua eta Serafin Barojak idatzitako hitzaz osatutako abestia. Konposizio honek, banderaren igoerarekin batera, egunari hasiera ematen dio. Jo daiteken egun bakarra Urtarrilaren 20a da, urteko gainontzeko egunetan jotzea debekatuta dago.

Danborrada guztiak, abesti batzuk jotzera behartuta daude, Raimundo Sarriegik konposatutako San Sebastian egunerako errepertorioa. Sei pieza dira: San Sebastian martxa, Erretreta, Polka, Iriyarena, Diana eta Tarero.

1990eko hamarkadan, errepertorio hori zabaldu egin zen eta abesti berriak gehitu zituzten, batzuk Raimundo Sarriegirenak. Abesti hauek aukerazkoak dira, hau da, Danborradak ez daude abesti hauek jotzea behartuta.

Abesti hauetaz gain, danborradarekin zerikusi gutxi duten beste hainbat abesti jotzen dira, besteak beste *Txuri-Urdin*.

BANDERA IGOERA

Banderaren igoera, Danborrada egunean programatutako lehen ekitaldia da. Urtarrilaren 20an, 0:00tan Konstituzio Plazan izaten da eta *San Sebastian Martxa*-rekin batera, egunari hasiera ematen dio. Bandera Donostiako alkateak igotzen du.

Donostiar asko bihotzez Konstituzio Plazan biltzen dira, plaza osoa betez, euren jendearekin *San Sebastian Martxa* abestia danbor edo upelekin jotzen eta egun bereziari hasiera emanez. Bertan, danbor eta upel guztien doinuak, donostiarren jatorria gogorarazten dute eta doinu hori munduko hiri guztietan entzuten da, jada, diasporako euskaldunak ere, nahiz eta Donostia ez ezagutu, gogoz ospatzen dutelako San Sebastian eguna.

BANDERA JEITSIERA

Banderaren jeitsiera, Danborrada egunean programatutako azken ekitaldia da. Urtarrilaren 20an, 24:00etan Konstituzio Plazan izaten da eta igoeran bezala, *San Sebastian Martxa*-rekin batera, egunari amaiera ematen dio. Bandera, Donostiako alkateak jeisten du.



Donostiar asko biltzen da, egunari hasiera emandako plaza berean, egunari amaiera emateko. *San Sebastian Martxa* danbor eta upelekin jotzen den bitartean, Donostiako alkateak bandera jeisten du. Hurrengo urterako gogo eta ilusioak betez donostiarrei. 24:00ak pasata, debekatuta dago *San Sebastian Martxa* abestia jotzea, hala ere, beste hainbat abesti jotzen dira, haien artean, Txuri-Urdin edo Ixil-ixilik dago.

HAUR DANBORRADA

Urtero, Urtarrilak 20ko goizean, haur eta gaztez betetako desfile batek alaitzen du Donostia, hiriko desfile jendetsuen eta maitatuenetako bat. Danborradako kideak beti



izan ziren helduak, baina, 1927an Euskal billera elkarteak, Zorroagako haurrekin, haurrek soilik osatutako desfile bat egitea adostu zuten. Nesken papera, helduen desfilean bezela, kantineira, banderadun eta Easo Ederra izan ziren. Haurren desfile hori oso ondo atera zenez, 1960ean haurren danborrada handitzea erabaki zuten eta 1961ean ehundaka haurrek hartu zuten parte danborradan.

Erabaki batzuk hartu ondoren, adostasun batzuetara iritsi ziren. Batetik, haurrak uniforme ikusgarriekin joango ziren jantzita. Bestetik, ikastetxe bakoitzak 8 eta 12 urte arteko 50 umeekin hartuko zuten parte desfilean. Haurren danborrada Euskal Billerakoen ideia izan zenez, haiek ziren desfilean buru eta beste eskola guztiak atzetik zihoazten.. Haur danborradaren edizioa ez zen hain ondo atera.

Udal korporazioa berandu iritsi zen Santa Maria mezan zeudelako. Ibilbidea oso luzea zen eta horren ondorioz umeak oso nekatuta bukatzen zuten, gainera, musika banda bakarra zegoenez, hurrek ez zuten musika ondo entzuten eta erritmoa galtzen zuten. Jantziei dagokionez, ikusgarritasuna nabarmendu zen. Hala ere, argi ikusten zen eskola publiko eta eskola pribatuen arteko desberdintasuna.

Easo Ederra, Haur Danborradako pertsonai nagusia da, XIX. mendetik, Donostiako emakume guztiak ordezkatzeko dituen pertsonai gaztea delako. Hasiera batean Inauterietako pertsonai gisa zen, baina Inauteriak desartu zirenean, Haur Danborradako pertsonai nagusia izendatu zuten. 1961ean, Haur Danborrada zabaldu zenean, Easo Ederra, karroza batean igotzea adostu zuten eta ohorezko damekin batera, desfilearen buru izatea pasa zen.



Gaur egun, 48 ikastetxek hartzen dute parte eta 12:00tan Donostiako udaletxean elkartuta, haur guztiak *San Sebastian Martxa* eta *Donostiako Antzinako Himnoa* jotzen dute, Danbor Nagusia zuzendari izanda. Horrela desfileari hasiera ematen diote eta bukatzerakoan haien ibilbidearekin hasten dira, Sarrieguiren hainbat doinu jotz, Iriyarena, Tatiago, Polka...

Ikastetxetako haurren danborradaz gain, beste haurren danborrada bereziak ere badaude.

URREZKO DANBORRA

1967an sortutako saria, pertsona fisikoei, haien ibilbide, ospe profesional edo beste alderdi batzuei esker, hiriarri nagusitasuna eta ospea emateagatik eskertzeko sari bat da. Donostiari emandako kanpo-irudi positibo batengatik, turismoa erakarri eta hiria ezagutzera ahalbidetu dutelako saria.

Hasiera batean, Donostian jaiok ez zirenak bakarrik jaso zezaketen saria, baina, araudia 1986an aldatu eta hiritarrak ere saria jasotzeko aukera zuten. Saritu batzuen artean, Martin Berasategui (2005), La Oreja de Van Gogh (2010) edo Xabi Alonso (2011) aurkitu daitezke. Hala ere, urte batzuetan ez da sariturik egon.



BIBLIOGRAFIA:

 [Donostiako Danborrada ✓ Web orri Ofiziala - Donostiako Danborrada \(donostiakultura.eus\)](https://www.donostiakultura.eus/)

[Bandera jaitsiera - Donostia Kultura](#)

[Bandera igoera - Donostia Kultura](#)

[Haur Danborrada - Donostia Kultura](#)